89. oinarria. Gauzatzeko epea.	Base 89. Plazo de ejecución.
90. oinarria. Justifikazio-epea.	Base 90. Plazo de justificación.
91. oinarria. Azpikontratazioaren baldintzak.	Base 91. Condiciones de subcontratación.
92. oinarria. Dirulaguntzak justifikatzea.	Base 92. Justificación de las subvenciones.
93. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.	Base 93. Pago de la subvención.
94. oinarria. Laguntzak metatzea.	Base 94. Acumulación de ayudas.
95. oinarria Laguntzen bateragarritasuna.	Base 95. Compatibilidad de las ayudas.
96. oinarria. Pertsona onuradunen beste betebeharrak.	Base 96. Otras obligaciones de las personas beneficiarias.





I. ERANSKINA. Bizkaiko turismo-baliabide katalogatuak

ANEXO I. Recursos turísticos catalogados de Bizkaia

II. ERANSKINA. 2030 Turismo Estrategiaren marketin-ardatza

ANEXO II. Eje de marketing de la estrategia de Turismo 2030

III. ERANSKINA Bilbao Bizkaiko turismo jasangarriaren adierazleak

ANEXO III. Indicadores de turismo sostenible de Bilbao Bizkaia

I. TITULUA

TÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

1. Diruguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

1. Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:

a) Inpaktu sozioekonomikoa sortze modu iraunkor batean.

a) Generar impacto socioeconómico de forma sostenible.

b) Enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzea.

b) Mejorar la competitividad del tejido empresarial.

c) Bisitariak erakartzea eta helmuga modu orekatu eta jasangarrian garatzea.

c) Atraer visitantes y desarrollar el destino de forma equilibrada y sostenible.

d) Nazioarteko posizionamendua sendotzea eta helmugaren irudia indartzea.

d) Consolidar el posicionamiento internacional y reforzar la imagen del destino.

e) Bisitari guztien esperientzia eta gogobetetasuna hobetzea.

e) Mejorar la experiencia y satisfacción de todas las personas visitantes.

f) Helmuga digitalki eraldatzea.

f) Transformar digitalmente el destino.

g) Ekosistema eta adimen turistikoaren eredua indartzea.

g) Reforzar el ecosistema y el modelo de inteligencia turística.

2. Programa hau hamalau jardun-arloen bitartez gauzatuko da:

2. La puesta en práctica de este programa se llevará a cabo a través de catorce áreas de actuación:

a) 1. arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak.

a) Área 1: Subvenciones para el refuerzo del ecosistema de gestión turística.



b) 2. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

c) 3. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

d) 4. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

e) 5. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

f) 6. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

g) 7. arloa: Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak.

h) 8. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.

i) 9. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

j) 10. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

k) 11. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

l) 12. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

m) 13. arloa: Turismo-enpresak eta helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

b) Área 2: Subvenciones para la potenciación de los recursos turísticos de Bilbao Bizkaia que no constituyen ayudas de estado.

c) Área 3: Subvenciones para la consolidación de los productos turísticos de Bilbao Bizkaia que no constituyen ayudas de estado.

d) Área 4: Subvenciones para el impulso de proyectos para un ecosistema turístico sostenible que no constituyen ayuda de estado.

e) Área 5: Subvenciones para la mejora de la competitividad sectorial que no constituyen ayudas de estado.

f) Área 6: Subvenciones para la digitalización del destino que no constituyen ayudas de estado.

g) Área 7: Subvenciones para la mejora de la atención a las personas visitantes.

h) Área 8: Subvenciones para la promoción turística en mercados que no constituyen ayudas de estado.

i) Área 9: Subvenciones para la potenciación de los recursos turísticos de Bilbao Bizkaia que constituyen ayudas de estado.

j) Área 10: Subvenciones para la consolidación de los productos turísticos de Bilbao Bizkaia que constituyen ayudas de estado.

k) Área 11: Subvenciones para el impulso de proyectos para un ecosistema turístico sostenible que constituyen ayuda de estado.

l) Área 12: Subvenciones para la mejora de la competitividad sectorial que constituyen ayudas de estado.

m) Área 13: Subvenciones para la digitalización del destino y de las empresas turísticas que constituyen ayudas de estado.



n) 14. Arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

n) Área 14: Subvenciones para la promoción turística en mercados que constituyen ayudas de estado.

2. oinarria. Definizioak.

Base 2. Definiciones.

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) Kudeaketa turistikoko erakundeak: kudeaketa turistikoko erakundeak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren lidergopean eta hark sustatzen dituen jarduketa-planen arabera Bilbao Bizkaia helmugaren garapen turistikoko jasangarria bultzatzen duten erakundeak. Eskualde- edo udalerrimailakoak izan daitezke.

a) Entes de gestión turística: son entes de gestión turística aquellas organizaciones que impulsan el desarrollo turístico sostenible del destino Bilbao Bizkaia, bajo el liderazgo de la Diputación Foral de Bizkaia y de los planes de actuación que ésta promueva. Pueden ser de ámbito comarcal o de ámbito municipal.

b) Eskualde-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: jarduketa-eremutzat eskualdea edo udalaz gaindiko gunea duten erakundeak, interes eta xede turistikoen administrazio-mugak gainditzeko dituztelako. Bilbao Bizkaian garapen turistikoko jasangarria bermatzeko, erakunde horiek lurraldeko udalerridesberdinetan turismoaren kudeaketa koordinatu behar dute eta langile prestatuak izango dituzte, jarduera turistikoa garatzeko aurrekontuaz gain. Landa-turismo jasangarria sustatu nahi da, Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritako landa-garapeneko politiken helburuekin bat etorritik —B) apartatuko VI. epigrafea, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea— eta 6.3. Artikuluan jasotako landa-ingurune erakunde-politiken helburu sektorialekin bat etorritik —D) apartatuko VI. epigrafea, landa-ingurunearen ehun ekonomikoa dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokienez—.

b) Entes de gestión turística de ámbito comarcal: Entidades cuyo ámbito de actuación es comarcal o supramunicipal, entendiendo que los intereses y fines de carácter turístico superan los límites administrativos. Con el fin de garantizar un desarrollo turístico sostenible en Bilbao Bizkaia, estos entes deben coordinar la gestión del turismo de distintos municipios del territorio y han de contar con personal cualificado, así como con presupuesto para el desarrollo de actividades turísticas. Se pretende fomentar el turismo rural sostenible de conformidad con los objetivos de las políticas de desarrollo rural establecidas en el artículo 5 de la Ley 7/2022, de 30 de junio, de Desarrollo Rural -epígrafe VI del ámbito B) fomento y la diversificación de la actividad económica en las zonas rurales del País Vasco- y los objetivos sectoriales de las políticas institucionales en el medio rural establecidas en el artículo 6.3 -epígrafe VI del apartado D) en materia de diversificación del tejido económico del medio rural y la creación de empleo-.



c) Udal-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: Bizkaiko udalak, baldin eta Bilbao Bizkaia helmugan garapen turistikorako kudeaketa-egiturak badituzte eta eskualde-mailako kudeaketa-erakunde bakar batean ere sartuta ez badaude. Kudeaketa turistikoko udal-erakunde horiek Bilbo Metropolitarraren ingurunean daude. Urduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo eta Sestao dira.

d) Udal turistikoak: Bizkaiko udalak baldin eta kudeaketa turistikorako gaitasuna badute: teknikariak, aurrekontua, jarduerak eta inbertsioak, bai eta tokiko turismo-bulego bat ere, modu iraunkorrean irekia; gainera, jarduera eskualdeko kudeaketa turistikoko erakunde batekin koordinatuko dute.

e) Turismoaren sektoreko enpresa-elkarteak: jarduera nagusia turismoa dutenak eta, gainera, sustapenerako edo inbertsiorako langile kudeatzaileak eta urteko aurrekontua dutenak. Deialdi honek xedatzen duenerako, honako hauek izan daitezke onuradun:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutakoak, betiere sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza lurraldean badaude.

2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutakoak, baina Bizkaiko Lurralde Historikoaz kanpo, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan produkzio-zentroekin lotutako langileak dituztela ziurtatzen badute; halako kasuetan, azaldu beharko da kopurua Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako tokietan.

f) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propioz gabeko erakundeak: izaera turistikoko jarduera ekonomikoa burutzen duten erakunde pribatuak, edozein dela ere haien forma

c) Entes de gestión turística de ámbito municipal: Ayuntamientos de Bizkaia que cuentan con estructuras de gestión para el desarrollo turístico en destino Bilbao Bizkaia y que no están encuadrados en ninguno de los entes de gestión de ámbito comarcal. Estos entes de gestión turística municipal, además de Orduña, pertenecen al entorno metropolitano de Bilbao. Son Orduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo y Sestao.

d) Ayuntamientos turísticos: Ayuntamientos de Bizkaia con capacidad de gestión turística que dispongan de personal técnico, presupuesto, actividades e inversiones en turismo, así como oficina de información turística local abierta con carácter permanente, desarrollando su actividad en coordinación con el Ente de Gestión Turística Comarcal.

e) Asociaciones empresariales sectoriales turísticas: Aquellas cuya actividad principal sea la turística y cuenten, además, con personal gestor y presupuesto anual para la promoción o inversión. A los efectos de esta convocatoria podrán ser beneficiarias de las subvenciones aquellas que:

1º o bien están radicadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, teniendo el domicilio social y fiscal en el territorio.

2º o bien estando radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, pero fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, acrediten que disponen de personal asociado con centros productivos en el Territorio Histórico de Bizkaia indicando su número tanto en Bizkaia como en el resto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Empresa turística y otros entes sin personalidad jurídica propia de carácter turístico: Entidades privadas que, independientemente de su forma jurídica, ejerzan una actividad económica de carácter



juridikoa. Deialdi honen ondorioetarako, dirulaguntzen onuradun izan daitezke egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badute. Jarduera turistikoa dela ulertuko da honako kasu hauetan:

1. Erakundeak “jarduera estrategikotzat” jotzen den EJSN bat dauka Bilbao Bizkaia helmugarako, zerrenda honen arabera:

- 1102: Ardoa egitea.
- 4910: Hirien arteko bidaiarien garraioa trenez
- 4931: Hiriko eta hiri inguruko lurreko bidaiarien garraioa
- 4939: Beste ataletan ez dauden lurreko bidaiaren garraio-motak
- 5010: Itsasoko bidaiarien garraioa
- 5030: Bidaiarien garraioa barneko bide nabigagarrietatik
- 5110: Aireko bidaiarien garraioa
- 5510: Hotelak eta antzeko ostatuak
- 5520: Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk
- 5530: Kanpingak eta karabanetarako aparkalekuak
- 5590: Beste ostatu batzuk
- 7911: Bidaia-agentzien jarduerak
- 7912: Operadore turistikoen jarduerak
- 7990: Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin zerikusia duten jarduerak
- 8230: Konbentzioak eta erakustazokak antolatzea
- 9102: Museoetako jarduerak
- 9103: Toki eta eraikin historikoak kudeatzea
- 9104: Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta erreserba naturaletako jarduerak
- 9321: Atrakzio-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak
- 9329: Bestelako aisialdi eta entretenimendu jarduerak.

turístico. A los efectos de esta convocatoria podrán ser beneficiarias de las subvenciones si tienen domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia. Se entenderá que la actividad es turística cuando:

1º o bien, la entidad dispone de un CNAE considerado como “actividad estratégica” para el destino Bilbao Bizkaia conforme al siguiente listado:

- 1102: Elaboración de vino.
- 4910: Transporte interurbano de pasajeros por ferrocarril.
- 4931: Transporte terrestre urbano y suburbano de pasajeros.
- 4939: Tipos de transporte terrestre de pasajeros N.C.O.P.
- 5010: Transporte marítimo de pasajeros.
- 5030: Transporte de pasajero por vías interiores navegables.
- 5110: Transporte aéreo de pasajeros.
- 5510: Hoteles y alojamientos similares.
- 5520: Alojamientos turísticos y otros alojamientos de corta estancia.
- 5530: Campings y aparcamientos para caravanas.
- 5590: Otros alojamientos.
- 7911: Actividades de las agencias de viajes.
- 7912: Actividades de los operadores turísticos.
- 7990: Otros servicios de reservas y actividades relacionadas con los mismos.
- 8230: Organización de convenciones y ferias de muestra.
- 9102: Actividades de museos.
- 9103: Gestión de lugares y edificios históricos.
- 9104: Actividades de los jardines botánicos, parques zoológicos y reservas naturales.
- 9321: Actividades de los parques de atracciones y los parques temáticos.
- 9329: Otras actividades recreativas y de entretenimiento.



Ostatuen kasuan, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 38.1 artikuluan definitutako ostatu-establezimenduak izango dira erakunde onuradunak.

2. Erakundeak behar bezala egiaztatutako aurreko ekitaldiko guztizkoaren % 50etik gorako fakturazioa du turismoko proiektu/bezeroei dagokienez.

g) Ekonomia-jardueren sailkapen nazionala (aurrerantzean, EJSN) zenbaki-sistema bat da, eta ekoizpen-unitate guztiak garatzen duten jarduera ekonomikoaren arabera taldekatu eta sailkatzea du helburu. EJSN kode hori bakarra da, eta enpresaren jarduera ekonomiko nagusia islatzen du. Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoan ematen da alta.

h) Baliabide turistikoak: ondasun edo gauza material edo immaterialak, elementu fisikoak, naturari loturikoak, sozialak eta kulturalak, turismoa erakarri eta haren kontsumoa bultzatzen dutenak, baita establezimenduen azpiegiturak eta turismora bideraturiko zerbitzuak ere.

i) Bisita-eskaintza: baliabide turistiko multzo bat da; baliabide horiek, bakarrik edo beste enpresa-zerbitzu batzuekin konbinatuta, aukera ematen diete bisitariei esperientzia turistiko on bat izateko, haien premietara egokitua.

j) Helmuga turistikoa: Bilbao Bizkaia bisitatzen dutenek aisia- edo negozio-jarduerak egiten dituzten eremua da.

k) Honako hauek hartzen dira bisitaritzat:

1. Turistak: helmuga turistikoan gaua igarotzen duten pertsonak

2. Txangozaleak: gaua bertan igarotzen ez dutenak.

En el caso de las empresas turísticas de alojamiento serán entidades beneficiarias los establecimientos de alojamiento definidos en el artículo 38.1 de la Ley 13/2016, de 28 de julio, de Turismo.

2º o bien, la entidad tiene una facturación en proyectos/clientes en turismo superior al 50% del total del ejercicio anterior debidamente acreditado.

g) Clasificación nacional de actividades económicas (en adelante, CNAE) es un sistema de numeración que tiene por finalidad agrupar y clasificar todas las unidades productoras según la actividad económica que desarrollan. Este código CNAE es único y refleja la actividad económica principal de la empresa. Se da de alta en la sede electrónica de la Seguridad Social.

h) Recursos turísticos: los bienes materiales o inmateriales, elementos físicos o de la naturaleza, sociales y culturales que puedan generar atracción y consumo turístico, así como las infraestructuras de los establecimientos y los servicios orientados al turismo.

i) La oferta visitable: aquella que está compuesta de recursos turísticos que por sí mismos o en combinación con otros servicios empresariales, permiten el disfrute por parte de las personas visitantes de una experiencia turística satisfactoria y adaptada a sus necesidades.

j) El destino turístico: es el espacio en el que se desarrollan las actividades de ocio o negocio de quienes visitan Bilbao Bizkaia.

k) Se consideran personas visitantes:

1º Turistas: a las personas que pernoctan en el destino turístico

2º Excursionistas: a aquellas personas que no pernoctan en el mismo.



l) Turismo-fluxuak: Lurraldearen barruko bisitarien korronteak dira.

l) Flujo turístico: las corrientes de personas visitantes dentro del Territorio.

m) Turismo-produktua: turismo-erabilerarako eta -gozamenerako egituratutako baliabide edo zerbitzu nagusi edo osagarri oro, non bisitariak jarduera bat edo gehiago egin ditzakeen.

m) Producto turístico: todo aquel recurso o servicio principal o complementario, estructurado para el uso y disfrute turístico, en el que se puedan realizar una o varias actividades por parte del visitante.

n) Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak: 2030erako Turismo Estrategian jasotakoak dira, eta bi kategoriatan sailkaturik daude: lehentasunezkoak eta osagarriak.

n) Los productos turísticos de Bilbao Bizkaia: son los contemplados en la Estrategia de Turismo 2030 y que están categorizados como prioritarios o complementarios.

1) Lehentasunezko produktuak: Bilbo metropolia, gizateriaren ondarea, gastronomia, kostalde ezohikoa, itsas kostaldea, txakolinaren mundua, parke naturalak, natura eta paisaiak, euskal nortasuna, landa-nortasuna, MICE eta arkitektura eta abangoardia.

1º Productos prioritarios: Bilbao metrópoli, patrimonio de la humanidad, gastronomía, costa insólita, costa marinera, el mundo del txakoli, parques naturales, naturaleza y paisajes, identidad vasca, rural, MICE y arquitectura y vanguardia.

2) Produktu osagarriak: surfing, hondartzak, aktiboa eta abenturazkoa, museoak eta bildumak, golfa, dorreak, gazteluak eta gotorlekuak, arkeologia eta industria-ondarea, osasuna eta ongizatea, jaieguna, itsas bidaiak, sormenezko erosketak, ekitaldien egutegia, erlijio-ondarea, naturaren behaketa, zinema-paisaiak, musika-eszena, kirol-hitzorduek eta Athletic experience.

2º Productos complementarios: surfing, playas, activa y de aventura, museos y colecciones, golf, torres, castillos y fortalezas, arqueología y patrimonio industrial, salud y bienestar, festiva, cruceros, compras creativas, calendario de eventos, patrimonio religioso, observación de la naturaleza, paisajes de cine, escena musical, citas deportivas y Athletic experience.

3) 2023 ekitaldirako, formulazio estrategiko garatua duten produktuak honako hauek dira: txakolinaren mundua, kostalde bakana, marinelen kostaldea, landa-turismoa, erosketa sortzaileak, arkeologia eta ondare industrial, natura eta paisaiak, parke naturalak eta museoak eta bildumak.

3º Productos que cuentan con una formulación estratégica desarrollada para el ejercicio 2023: el mundo del txakoli, costa insólita, costa marinera, turismo rural, compras creativas, arqueología y patrimonio industrial, naturaleza y paisajes, parques naturales y museos y colecciones.

o) Ekosistema turistiko kooperatzailea: ikuspegi bera duten eta, helburu erkideak lortzearren, kooperazio-proiektuetan modu koordinatuan lan egiten duten industria turistikoko eragileen sarea. Aktibo turistiko horiek elkarrekin jarduten dute lankidetzan, era askotan, modu zabal

o) Ecosistema turístico cooperador: el tejido de agentes de la industria turística que comparte una misma visión y trabajan coordinadamente en proyectos cooperados para lograr objetivos comunes. Este conjunto de activos turísticos colabora entre sí de manera amplia, diversa y



eta kohesionatu batean, Bilbao Bizkaiko 2030erako Turismo Estrategia indartzeko.

cohesionada para fortalecer la Estrategia de Turismo 2030 de Bilbao Bizkaia.

p) Turismo irigarria: irigarritasun-premia bereziak dituzten pertsonen (hainbat dimentsiotan, hala nola mugikortasuna, ikusmena, entzumena eta kognizioa) modu independentean, berdintasunez eta duintasunez ibiltzeko aukera ematen dien turismo mota, modu unibertsalean diseinatutako produktu, zerbitzu eta turismo-inguruneen eskaintzari esker.

p) Turismo accesible: aquella forma de turismo que permite a las personas con necesidades especiales de acceso (en distintas dimensiones, entre ellas las de movilidad, visión, audición y cognición) funcionar independientemente, con igualdad y dignidad, gracias a una oferta de productos, servicios y entornos de turismo diseñados de manera universal.

q) Teknologia aurreratutzat: zerbitzu, sare, software eta gailuen multzo bat helburutzat duena ingurune baten barruan pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, eta informazio-sistema interkonektatu eta osagarri batean integratzen dena.

q) Tecnología avanzada: el conjunto de servicios, redes, software y dispositivos que tienen como fin la mejora de la calidad de vida de las personas dentro de un entorno, y que se integran a un sistema de información interconectado y complementario.

r) IOT: gailuak eta objektuak elkartzea eta elkarrekin konektatzea sare baten bidez (pribatua nahiz Internet), non guztiak ikus daitezkeen eta elkarri eragin Bilbao Bizkaia helmugako turismo-xede edo -proiektu baterako.

r) Internet of things (en adelante, IOT): la agrupación e interconexión de dispositivos y objetos a través de una red (bien sea privada o Internet, la red de redes), dónde todos ellos podrían ser visibles e interaccionar para un fin o proyecto turístico en Bilbao Bizkaia.

s) Informazio mugikorra: bisitariei arreta pertsonalizatua emateko aukera ematen duten azpiegitura edo zerbitzu ez-iraunkorrak, turismo-fluxuek puntualki eta behar bezala justifikaturik beharrezko duten espazioetan.

s) Información móvil: aquellas infraestructuras o servicios no permanentes que permiten ofrecer una atención personalizada a las personas visitantes en espacios donde los flujos turísticos las requieran de manera puntual y debidamente justificadas.

t) Turismo-informazioko euskarri digitalak: teknologia digitala ezartzea (pantailak, totem interaktiboak edo antzekoak), bisitariei informazioa eta arreta eskaintzeko.

t) Soportes digitales de información turística: la implantación de tecnología digital (pantallas, tótems interactivos, o similares) capaz de ofrecer información y atención a las personas visitantes.

u) Smartphone technology: telefonoekin zerikusirik ez duten beste ezaugarri batzuk dituen ordenagailu integratu bat duen telefono zelularra, hala nola sistema eragile bat, web-nabigazioa eta software-

u) Smartphone technology: Teléfono celular con un ordenador integrado que tiene otras características que no están relacionadas con los teléfonos, como un sistema operativo, navegación web y capacidad de





aplikazioak exekutatzeko gaitasuna.

ejecutar aplicaciones de software.

v) Bizkaiko natur gune babestuak:

v) Espacios naturales protegidos de Bizkaia:

- Artibai ibaiako Kontserbazio Bereziko Eremua (aurrerantzean KBE)

- Zona de Especial Conservación (en adelante ZEC) río Artibai

- Lea ibaia KBE

- ZEC río Lea

- Urdaibaiko Biosfera Erreserba

- Reserva de la Biosfera de Urdaibai

- Gaztelugatxeko Biotopo babestuak (aurrerantzean BB)

- Biotopos Protegidos de Gaztelugatxe (en adelante BP)

- Astondoko Haremunak KBE

- ZEC Dunas de Astondo

- Barbadun Itsasadarra KBE

- ZEC Ría de Barbadun

- Armañon KBE eta Parke Naturala (aurrerantzean PN)

- ZEC y Parque Natural (en adelante PN) de Armañon

- Ordunte KBE

- ZEC de Ordunte

- Meatzaldeko BB

- BP Zona Minera de Bizkaia

- Gorobel Mendilerro Hegaztien babes bereziko eremua

- Zona Especial de Protección para las Aves de Sierra Salvada

- Gorbeia KBE eta PN

- ZEC y PN de Gorbeia

- Zadorrako urtegiak KBE

- ZEC embalses del Zadorra

- Urkiola KBE eta PN

- ZEC y PN de Urkiola

w) 2023ko ekitaldirako zehaztutako ekintza-plana duten merkatuak:

w) Mercados que cuentan con un plan operacional definido para el ejercicio 2023:

1. Hurbileko merkatuak: Estatua eta Frantziako Hego-mendebaldea.

1º Mercados de cercanía: Estado y Sudoeste de Francia.

2. Lehentasunezko merkatuak: Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Italia, Herbehereak eta Estatu Batuak.

2º Mercados prioritarios: Francia, Reino Unido, Alemania, Italia, Países Bajos y Estados Unidos.

3. Aukera-merkatuak: Irlanda, Suitza, Portugal, Belgika, Danimarka, Norvegia, Suedia, Finlandia eta Baltikoko Herrialdeak.

3º Mercados de oportunidad: Irlanda, Suiza, Portugal, Bélgica, Dinamarca, Noruega, Suecia, Finlandia y Países Bálticos.

4. Merkatu taktikoak: Argentina, Mexiko, Grezia, Turkia, Ekialde Ertaina, Asia, Europako ekialdea.

4º Mercados tácticos: Argentina, México, Grecia, Turquía, Oriente medio, Asia, Este de Europa.



II. TITULUA

TÍTULO II

Estatuko laguntzak ez diren dirulaguntzak

Subvenciones que no son ayudas de estado

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I

1. arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak

Área 1: Subvenciones para el refuerzo del ecosistema de gestión turística

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeek eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak.

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones los Entes de Gestión Turística de carácter comarcal y local y otros entes públicos dependientes de estos últimos.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las personas y/o entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikulua araber, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.

a) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004) deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

b) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

b) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).



Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos y hasta la finalización del plazo de ejecución del proyecto.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.

a) Las entidades públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las Mujeres (en adelante Ley 4/2005).

b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren (aurrerantzean 15/2022 Legea) IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

b) Las entidades públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación (en adelante Ley 15/2022).

c) Laguntza bat legez kontraktotzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeke agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

c) Las personas o entidades que estén sujetas a una orden de recuperación de ayudas pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat: eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeek eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuek helmugen kudeaketa turistikorako pertsona espezializatu bat izatea.

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable el dotarse de una persona especializada para la gestión turística de destinos por parte de los Entes de Gestión Turística comarcales y locales y otros entes públicos dependientes de estos últimos.



2. Ezinbestekoa izango da erakunde onuradunak proiektu bat aurkeztu izana 4. arloan (Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzea), eta arlo horretan behar den gutxieneko puntuazioa lortu izana.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

a) Honako gastu hauek sartzen dira: zuzeneko kontratazioa (administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileenak izan ezik, plantillan badaude), turismoko profesional baten asistentzia edo teknikari bat duen enpresa batena, turismoko unibertsitate prestakuntza edo destinoen kudeaketan gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatua duena.

b) Langileak zuzenean kontratatzen direnean, ordainsari gordinaren eta Gizarte Segurantzari enpresak ordaintzen dion kuotaren batura izango da kostua.

2. Será condición necesaria que la entidad beneficiaria haya presentado un proyecto en el área 4 (Impulso de proyectos para un ecosistema turístico sostenible) y obtenido la puntuación mínima necesaria en esta área.

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.

4. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.

Base 5. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad, que a continuación se indican:

a) Se incluyen los gastos de contratación directa (excluidos el del personal al servicio de las Administraciones Públicas incluidos en su plantilla), o de asistencia de una persona profesional del turismo o de una empresa que cuente con una persona técnica, con formación universitaria en turismo o experiencia acreditada en gestión de destinos de al menos dos años.

b) En el caso de la contratación directa de personal, se entenderá como coste, la suma de la retribución bruta más la cuota empresarial de la seguridad social.



c) Bai zuzeneko kontratazioaren kasuan, bai laguntza teknikoaren kasuan, beharrezkoa izango da pertsona teknikoak parte hartzea 2030 Turismo Estrategiaren gobernantza-ereduko tresnetan, bai eta estrategia horren garapen- eta marketing-proiektuen garapenean eta ezarpenean ere.

d) 89. oinarrian ekintzak egiteko jasotako eperako diruz lagunduko da kontratua gehienez ere, teknikaria zuzenean kontratatzen denean nahiz laguntza teknikoa emateko kontratatzen denean.

e) Turismo-bulegoetan edo antzekoetan jendearenganako arreta-zerbitzuetan diharduten pertsonak ezin dira inola ere dirulaguntza jaso dezaketen teknikaritzat hartu.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

3. Zergak eta tasak, oinarri bereko 2 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko.

4. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

1. Diruz lagundu daitezkeen egitateek dirulaguntza jaso dezaketen gastuen %70(e)ko laguntza izango dute gehienez, eta kasu batean ere ez da izango 30.000 eurotik gorakoa zuzeneko kontratazioa bada eta 20.000 eurokoa, turismoko profesional batek edo enpresa batek

c) Tanto en el caso de contratación directa como en el de asistencia técnica, será necesaria la participación de la persona técnica en los instrumentos del modelo de gobernanza de la Estrategia de Turismo 2030, así como en el desarrollo e implantación de los proyectos de desarrollo y marketing de dicha estrategia.

d) Como máximo se subvencionará el período de contrato dentro del plazo de ejecución de la base 89 tanto en el caso de contratación directa de una persona técnica como en la contratación de una persona técnica por asistencia técnica.

e) En ningún caso podrá considerarse como persona técnica objeto de subvención las personas dedicadas a la atención al público en oficinas de turismo y similares.

2. El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) será gasto subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo haya abonado efectivamente y no lo pueda recuperar o compensar.

3. No se considerarán gastos subvencionables los impuestos y tasas, salvo lo dispuesto sobre el IVA en el epígrafe 2 de esta misma base.

4. De conformidad con el artículo 29.2 de la Norma Foral 5/2005, se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado en estas bases.

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

1. Los hechos subvencionables tendrán una ayuda máxima del 70% del gasto subvencionable y no será en ningún caso superior a 30.000 euros en el caso de contratación directa y de 20.000 euros, en el supuesto de contratación de asistencia técnica de una persona profesional del



turismoko teknikari batekin laguntza teknikoa kontratatzen badu.

2. Halaber, arlo honetan laguntzaren zenbatekoaren muga izango da gainerako arloetan (2tik 8ra) erakundeak lortutako zenbateko guztia.

3. Arlo honetarako ezarritako gehieneko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarritako gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

turismo o una empresa con un técnico o técnica de turismo.

2. Asimismo, el importe de la ayuda de esta área tendrá como límite el total del importe obtenido por la entidad en el conjunto de áreas de las que puede ser entidad beneficiaria (áreas 2 a 8).

3. Además de la cuantía máxima anterior fijada para esta área, el importe acumulado de las ayudas obtenidas por medio del presente decreto no podrá superar el máximo de 120.000 euros por entidad beneficiaria.

4. En el caso de superarse el límite global máximo fijado por entidad beneficiaria, el excedente se reducirá en el expediente que hubiera obtenido menor puntuación.

II. KAPITULUA

2. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak

7. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

1. Erakunde hauek jo daitezke dirulaguntzen onuraduntzat, baldin eta l. eranskineko turismo-baliabidearen titular edo kudeatzaile baimenduak badira:

a) Eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuk.

b) Bizkaiko udalak eta hauen mendeko erakunde publikoak eta beste tokiko erakunde publiko batzuk.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeak baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

CAPÍTULO II

Área 2: Subvenciones para la potenciación de los recursos turísticos de Bilbao Bizkaia que no constituyen ayudas de estado

Base 7. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones, siempre que sean titulares o gestores autorizados del recurso turístico del Anexo I, las siguientes entidades:

a) Entes de gestión turística comarcal y local y otros entes públicos dependientes de estos últimos.

b) Ayuntamientos y sus entes públicos dependientes y otros entes públicos locales de Bizkaia.

2. Las personas y/o entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:



a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikulua arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.

b) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

c) Kudeaketa turistikoko erakundearen berariazko baimena egiaztatzea, 8. oinarrian diruz lagun daitekeen egitatearekin zerikusia duena. Agiri hori eskabidean aurkeztuko da.

d) I. eranskinetako turismo-baliabidearen titularraren berariazko baimena egiaztatzea, erakunde onuraduna haren titularra ez den kasuetan. Agiri hori eskabidean aurkeztuko da.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.

b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako

a) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004 deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

b) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.

c) Acreditar autorización expresa de su ente de gestión turística relacionado con el hecho subvencionable de la base 8, documento que será aportado en la solicitud.

d) Acreditar autorización expresa de la persona titular del recurso turístico del Anexo I, en los supuestos en que la entidad beneficiaria no sea titular del mismo, documento que será presentado en la solicitud.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos y hasta la finalización del plazo de ejecución del proyecto.

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Las entidades públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018 y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005.

b) Las entidades públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los



termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022.

c) Laguntza bat legez kontrakotzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

c) Las personas o entidades que estén sujetas a una orden de recuperación de ayudas pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

8. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 8. *Hecho subvencionable.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat: Bilbao Bizkaiaren garapen turistiko jasangarrirako estrategikotzat katalogatutako turismo-baliabideen azpiegiturretan eta/edo ekipamenduetan egindako inbertsioa (I. eranskina), honako ildo hauetan:

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable la inversión en infraestructura y/o equipamientos de los recursos turísticos catalogados como estratégicos para el desarrollo turístico sostenible de Bilbao Bizkaia (Anexo I) en las siguientes líneas:

a) Baliabideetarako irispideak nabarmentzea eta irisgarritasun unibertsala hobetzea.

a) La puesta en valor del acceso a los mismos y mejora de la accesibilidad universal.

b) Harrera-zerbitzu bat abian jartzea, bai eta turismo-baliabidearen informazio- eta interpretazio-sistemak ere.

b) La puesta en marcha de un servicio de acogida, así como los sistemas de información e interpretación del recurso turístico.

c) Baliabidearen bisita turistikoari eragiten dioten azpiegituren hobekuntzak.

c) Las mejoras en las infraestructuras que afecten a la visita turística del recurso.

d) Edukien eta eskaintza bisitagarriaren balioa nabarmentzea.

d) La puesta en valor de los contenidos y de la oferta visitable.

e) Bisitarien esperientzia hobetuko duten oinarrizko zerbitzuak, behar bezala justifikaturik.

e) Los servicios básicos que mejoren la experiencia de las personas visitantes debidamente justificadas.

f) Dinamizazio-zerbitzuak eta turismo-zerbitzuak.

f) Los servicios de dinamización y servicios turísticos.

g) Baliabideak eta haien ingurune hurbilena turismoaren ikuspegitik edertzea.

g) El embellecimiento de carácter turístico de los recursos y su entorno más próximo.

h) Zenbat jende datorren neurtzeko eta turismo-fluxu kontrolatzeko sistemak.

h) Los sistemas de medición de la afluencia y control de los flujos turísticos.



i) Aurreko diruz lagun daitezkeen egitateei buruzko azterlanak, salbu eta Bilbao Bizkaia helmugan mugikortasun turistikoa jasangarrira bideratutako lehia askeko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen foru dekretuko diruz laguntzeko moduko egitateak (4.1.b), horiek dekretu horretan xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

i) Los estudios referidos a los hechos subvencionables anteriores, salvo aquellos que constituyan hecho subvencionable (4.1.b) del decreto foral por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones, en régimen de libre concurrencia, destinadas a la movilidad turística sostenible en el destino Bilbao Bizkaia, que se regirán por lo dispuesto en el mismo.

2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

2. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.

9. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 9. *Gastos subvencionables.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

